



**Arartekoaren 2018R-248-18 Ebazpena, 2018ko azaroaren 19koa. Horren bidez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari zerga-ordenantza aldatzea eskatzen zaio, egun putzu septikoekin higiezinaren titularrei bidaltzen zaien saneamendu-tasaren konfigurazioak gainerako erabiltzaileekin berdintasun-baldintzetan zerbitzuaren prestazio eraginkorrari ez baitio erantzuten.**

### Aurrekariak

1. Kexagileak Arartekoaren aurrean egindako kexan ez dago ados Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) kobratzen duen saneamendu-tasarekin.

Bere esanetan, etxebizitza Bilboko udalerriko landa-ingurunean dago eta putzu septikoa du, ezin baitu udal saneamendu-sarea materialki aprobetxatu.

Kaltetutakoak azaldutakoaren arabera, 2013. urtera arte partzuergoak saneamendu-tasaren kargura bere gain hartzen zuen putzu septikoa garbitu eta horretan biltegitratutako lohiak garraiatu eta araztea. Irizpide-aldaketa justifikatzeko lurzatian hirigintza-aldaketarik edo zonako saneamendu publikoaren udal-sareen hedadurarik izan gabe, ordea, BBUPk, bere aldetik eta aurretiaz jakinarazi gabe, ordaintzen zen saneamendu-tasaren kargura eskainitako zerbitzua aldatzea erabaki zuen eta harrezkero saneamenduagatik eskainitako zerbitzuan ez zen sartzen ez puntu septikoa hustea, ezta lohiak hondakin-uren araztegi (HUA) garraiatzea ere. Beraz, urte horretatik hona ur-horniduraren zerbitzua erabiltzen dutenek puntu septikoa izanez gero, beren kargura ordaindu behar dituzte bi zerbitzu horiek.

Kexagileak baieztatutakoarekin bat, aldaketaren berri askoz beranduago izan zuen, partzuergoari putzua hustea eskatu zionean. Orduan, BBUPk saneamendu-tasaren arau berria eta ordainketari lotutako zerbitzu zehatza azaldu zizkion.

Gaiari eutsiz, kaltetutakoak erantsitakoarekin bat, saneamendu-tasaren kontzeptupean ordaindu beharreko tarifak murrizketa izan du, baina sinbolikoa izan da eta oharkabean pasa zaio. Ildo horri jarraiki, bere kasu zehatzean tarifa urtean gutxi gorabehera 12 euro murriztu da, hortaz, murrizketak ez du inolaz ere orekatzen eskatutako zerbitzuaren kostua. Bere egoerari erreparatuz, putzu septikoa hustu eta lohiak araztegi garraiatzeko kostua 240 euro ingurukoa da. Aipatu zenbatekoa bi urtez behin ordaindu behar du, epe horretan betetzen baita etxebizitzan instalatua duen putzu septikoa.

Kexagileak bere kexan onartzen zuen 240 euroko zenbatekoa garbitu, hustu eta lohiak garraiatzeko zerbitzu berriaren tarifarekin bat zettorrela. Izan ere, hori Ur Partzuergoak berak putzu septikoen titularrei eskaintzen zien, hustu eta lohiak Galindoko HUAr eramateko zerbitzua kontratatu nahi bazuten.

Hau da, interesdunak defendatutakoaren arabera, BBUPk urteko 120 euroko saneamendu-kostua eragin dio eta neurri orekatzaile modura, urtean 12 euro





murriztu dio saneamendu-tasaren zenbatekoa. Bere ustez, neurri hori ez da nahikoa eta zerbitzua eskaintzean berdintasun-printzipioaren aurka doa.

2. Arartekoak, lehenago antzeko espedienteetan, Ur Partzuergoari halako kasuetan saneamendu-tasa berregituratu behar dela adierazi dio. Nolanahi ere, erabiltzaileek udal-estolderiaren sarean integartzeko eta, ondorioz, putzu septikoa deuseztatzeko beharrik ez dute. Ustezko horietan, erakunde honek defendatutakoari jarraiki, putzu septikoa izateagatik garbitu eta lohiak araztegiraino eramateko kostuak erabiltzaileak bere gain hartu behar baditu, tasa ordaintzearen kargura jasotzen duten saneamendu-zerbitzua ezin daiteke udal-saneamenduaren sarean dagoen etxebizitzako erabiltzaileak ordaintzen duenarekin berdindu. Horregatik, partzuergoari eskatu zaio halakoetan putzu septikoa garbitu eta HUAra garraiatzeko zerbitzua saneamendu-tasaren kontura doan eskaintzen jarraitzea edo pertsona horiei saneamenduarengatik tasarik ez kobratzea eta lohiak Galindoko HUA-n isurtzen direnean, isurketa- eta arazketa-tasa eskatzea, isuriaren karga kutsatzailearen arabera.
3. BBUPk erantzundakoarekin bat, bere jarduera zerga-ordenantzaren aurreikuspenei eta partzuergoaren barruan dauden udalerriek hartutako erabakiei oso-osorik egokitzen zaie.
4. Horrez gain, saneamendu-tasa ordainduko ez balute, Galindoko HUA-n erabiltzaile horiek ordainduko beharko luketen isurketa-tasa argitzea eskatu da. Horren harira, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren esanetan, isurketa-tasa ez dago zerga-ordenantzan zehaztua, ustezko hori gertatzen ez baita: *“edozein ur-hornidurari hornidura-tarifa eta saneamendu-tarifa ezartzen baitzaizkio”*.

Zehatz-mehatz esanda, txostenak hurrengo ezartzen du:

*“Argibidearen xedeari dagokionez (zer tarifa esleitu zaion hondakin uren araztegian isurtzeko tasari, hau da, partikularrek ordaindu beharko luketenari saneamendu tasa ordainduko ez balute), indarrean dagoen araudian ez da ezartzen adierazten diguzun tarifa uzteko gertakaria ez baita jazo. Alegia, edozein ur-hornidurari hornidura-tarifa eta saneamendu-tarifa ezartzen baitzaizkio.*

*Eta aurreko idazkian adierazten zen bezala (R.S. 1630 2018ko martxoaren 12a), hobi septikoen tratamenduan, hasieran, bi kasuistika kontuan hartzen zirela: alde batetik, kokapena dela-eta saneamendu-sare bati lotzeko aukerarik sekula izango ez zuten bezeroak eta, bestetik, etorkizunean, lehenago edo beranduago, saneamendu-sareari lotzeko aukera izango zutenak, nahiz eta errealitateak agerian jarri duen estolderia-tasaren hedapen potentzial hori, egiatan, ez dela gertatu.*

*Lehenengo kasuan, hobi septikoak garbitu egiten ziren bezeroak ezer ordaindu behar izan gabe; bigarren kasuan, ordea, saneamendu-sareari benetan lotuta dauden gainerako erabiltzaileek ordaintzen duten tasa*





*ordaintzen zuten bezeroek (baina ez zeuden lotuta artean) eta gainera hauen bezeroaren esku uzten euren hobi septikoa garbiketa, lohiak batu eta araztegira eramateko lana.*

*Horrenbestez, bi kasuen artean diskriminaziorik ez sortzeko asmoz, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, **saneamendu-tarifa murriztu bat** aplikatu zitzairen hobi septikoa daukaten erabiltzaile guztiei. Horren bidez, **soilik arazketa-kostuak finantzatu nahi dira**, eta bezeroaren esku uzten da lohiak batu eta araztegira eramateko lana. Horren ostean, Partzuergoak berak tratatzen eta arazten ditu hondakinak.*

*Alegia, saneamendu-tarifaren ezarpena orokorra da eta ur-horniduraren osagarria da. Ondorioz, saneamendu-saretik at geratzen diren erabiltzaileei **saneamendu-tarifa murriztu bat** aplikatzen zaie eta **soilik arazketa-kostuak finantzatzeko asmoz**. Partzuergoak berak tratatzen eta arazten baititu hondakinak HUAN.*

*Hobi septikoan metatutako lohiaren garbiketa eta garraioa jabearen kontura egingo dira, eta lohia Galindoko HUAN tratatuko da, kostu gehigarririk gabe, hiru hilerik behin likidatzen den saneamendu tasaren barne baitago.*

***Saneamendu tasaren %23 murrizpena du inguru**, Saneamendu Sistema Orokorrena konektatutako gainerako erabiltzaileen aldean, sarera konektatzeko aukerarik ez duten eta euren hobi septikoko lohien garraioaz arduratzen diren bezeroak baitira, isurketa HUAN egiteko zuzenean.*

*Deskribatutako operatiba eta aplikatu beharreko tasak indarreko ordenantza fiskalean jasota daude ( atxikita doakizu).*

*Hobi septikoan metatutako lohiaren garbiketa eta garraioa, erabiltzaileak nahiago badu BBUPk (eta ez beste enpresa pribatu batek) eman dezala hobiko lohiak hustu eta araztegira garraiatzeko zerbitzua, kontuan hartu beharko da Tasak Arazten dituen Ordenantzaren 15-B artikuluan xedatutakoa (saneamendu-sistema batek zerbitzatzen ez dituen arazketa instalazio autonomoak, titulartasun pribatukoak):*

*"Partzuergoak halako erabiltzaileei instalazioak hustu eta garbitzeko zerbitzu kolektiboa eskaini ahalko die, bai eta ondoriozko lohiak Galindoko HUARaino eramateko garraioa ere. Jarduera horiek guztiak haien konturakoak izango dira (2016-12-30eko 248. zenbakidun BAO). Partzuergoari azken zerbitzu hori nola ordaindu Ordenantza Fiskal honetan ezarritako prezio publikoaren bidez arautuko da (2018. urtea, 2017-12-29ko 247. zenbakidun BAO)."*

*2017ko abenduaren 29ko 247. Zenbakidun BAO, 2018. urterako tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketak argitaratu ziren; VI. atalean zera adierazten zen:*





*"Arazketa instalazio autonomoetako hondakinak hustu, garbitu eta Galindoko HUAra garraiatzeko zerbitzuaren prezio publikoa (15. B eta 15. C artikuluetan):*

*Etxebizitzetako Hondakinak*

- *Etxebizitza bat edo bi etxebizitza ezberdinentzako putzu septikoa izanik.*
- *Prezioa 230,45 euro da, eskatzen den garbiketa eta garraio bakoitzeko".*

*Horrenbestez, esku artean daukagun etxebizitzaren hobia garbitzeko BBUPren egungo tarifen prezioa 253,49 eurokoa da (BEZa barne)".*

### Gogoetak

1. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, saneamendu- eta arazketa-zerbitzua eskaintzeari buruzko ordenantzak onartutakoaren arabera, *"udalaz gaindiko erakundea da, eta bere xede nagusia edateko urez hornitzea eta hondakin uren saneamendu eta arazketa zerbitzuak ematea da, Partzuergoa bera osatzen duten udalerrien lurralde-eremuan, oinarrizko printzipiotzat hartuta hiriko uraren ziklo osoaren kudeaketa eta, aipaturiko lurralde-eremuan, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasuna nahiz tarifen uniformetasuna".*

Ordenantza zehatz honek zioen azalpenean printzipio batzuk zehazten ditu eta horien inguruan egituratzen da ondoren ordenantzaren xedapen-zatia. Zehazki, honakoak azpimarra daitezke, erakunde honen ustez, sustatutako kexarekin harremana dutelakoan:

- Saneamendu-sistema nahitaez erabil behar izatea.
- Partzuergoa osatzen duten udalerrri guztietan homogeneotasunez aplikatzea, alde batera utzita kasu batzuetan saneamendu-sistemen azpiegiturak amaitu gabe egotea.
- Saneamendu-sistema orokorreki konektatutako arazketa-instalazio autonomoak (putzu septikoak) pixkana deuseztatzea.
- Arazketa-instalazio autonomoetako lohien kudeaketa arautzea.
- Erabiltzaileak sailkatzea.
- Bakoitza bere aginpideen eremuan, udalen eta partzuergoaren artean koordinatzea.
- Ekonomia zamak eta kostuak berreskuratzea.

Saneamendu-zerbitzuari buruzko ordenantzaren 3. artikulua definizioak lantzen ditu eta, besteak beste, honakoak ageri dira: saneamendu publikoaren sistema, erabiltzailea eta etxeko hondakin-urak.

### ***"Saneamendu Sistema Publikoa.***

*Jabetza publikoko obra- eta instalazio-multzoa da, Ordenantzaren aplikazio-eremu geografikoan sortzen diren hondakin urak bildu, eroaman eta arazteko helburu duena.*





*Elementu hauek edo hauetako batzuek osatzen dute:*

- 1. Udalaren estolderia sareak: udalaren titulartasuneko eta kudeaketako estolda, kolektore eta elementu osagarrien multzoa dira, eta udalerrri osoan edo zati batean hondakin urak eta/edo euriurak biltzen dituzte, lehen mailako sarera, araztegiara edo ingurune hartzailera eraman eta bertan isurtzeko.*
- 2. Lehen mailako sarea: Partzuergoaren titulartasuneko eta kudeaketako kolektore, etengailu eta elementu osagarrien multzoa da; halakoek tokiko sareen edo udal-estolderien erabiltzaileengandik datozen hondakin urak biltzen dituzte, bai eta, salbuespenez, sare pribatuen erabiltzaileengandik datozenak ere, araztegietara eramateko.*
- 3. Hondakin uren araztegia (HUA): tokiko sare edo sare orokorretatik datozen hondakin urak arazteko behar diren egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa da.*
- 4. Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatutako eremua: Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatutako eremua da sistema hori osatzen duten azpiegiturak –hala nola, hondakin uren araztegiak (HUA)– eta azken horri loturiko lehen eta/edo bigarren mailako (estolderiak) sareak hedatuta eta funtzionamenduan dauden lurralde-eremua, eremu horren barruko edozein toki edo kokapen urbanizatu edo urbanizagarrik sare horiek osatzen dituztenetako edozein tarterekin edo HUArekin berarekin lotura ezartzeko puntu bat izateko moduan, 100 metroak gainditzen ez dituen distantzia batera, betiere, bi punturen artean zuzen neurturik.”*

#### ***“Erabiltzailea.***

*Pertsona fisiko edo juridikoa, etxebizitza baten jabea, etxebizitza baten okupatzailea edo jarduera, saltoki edo industria baten titularra, hondakin urak sortzen dituen. Erabiltzaileak mota hauetan sailkatzen dira:*

- A mota: Bizi den etxebizitzarako ura bakar-bakarrik erabiltzen duena.*
- B mota: Ura industriako, merkataritzako edo beste alor bateko jardueretarako erabili, eta 200 biztanle-baliokidetik beherako kutsadura-karga duten hondakin urak sortzen dituen.*
- C mota: Ura industriako edo merkataritzako jardueretarako erabili, eta 200 biztanle-baliokidetik gorako kutsadura-karga duten hondakin urak sortzen dituen, Ordenantza honetako 21. artikulua araberaz zehaztuta...”*

#### ***“Etxeko hondakin urak.***

*Etxebizitzak eta zerbitzuak dauden aldeetatik datozen hondakin urak, gehienbat giza metabolismoak eta merkataritza, industria, nekazaritza eta abeltzaintzakoak ez diren etxeetako jarduerak sorturikoak”.*





Era berean, saneamendu-zerbitzuko ordenantzaren 5. artikulua saneamendu publikoaren sistema erabiltzea inposatzen du eta 6. artikulua saneamendu autonomoaren salbuespenezko eta aldi baterako izaera onartzen du hurrengo moduan:

#### **“SANEAMENDU SISTEMA PUBLIKOAREN ERABILTZEA**

*Fatxadaren aurrean udal-estolderia edo lehen mailako saneamendu sarea duten eraikuntza eta merkataritzako edo industriako establezimendu guztiek beren isurketak halakora lotzeko betebeharra dute, Ordenantza honetako xedapenei jarraituz.*

*Sare bereziak dauden tokietan, eraikuntzek hustubide-sare eta zorroten-sare bikoitza izan beharko dute, eta une oro saihestuko da hondakin urak eta euri-urak nahastea. Halako kasuetan, erabat debekaturik dago euri-uretarako edozein hodi hondakin uren sarera lotzea, bai eta hondakin uren hodiak euri-uren sareetara lotzea ere.*

*Salbuespenez, finkaren aurrean ez udal-estolderiarik ez lehen mailako saneamendu sarerik ez dagoenean, baina, ordea, halako baterainoko distantzia 100 metro baino gutxiago denean –orubeak sare publikotik hurbilen duen mugaren eta fatxada-lerroaren arteko elkargunetik abiatuz eta loturaren luzetarako ardatzak eragiten dien bideen lerrokatutatik jarraituz neurtuta–, baldin eta teknikaren aldetik bideragarria bada eta erabiltzaileari neurrigabeko kostua ez badakarkio, titularrak hondakin urak sare publikora eraman behar ditu, luzetarako kolektore bat eginez; tarte horretan dauden finken titular guztiek elkartuta egin dezakete aipatutako kolektorea. Kolektore hori udal-administrazioaren edo administrazio eskudunaren jarraibideekin bat egingo da.*

*Aurreko lerroaldean jasotako egoera gertatzen ez den kasuetan, erabiltzaileek hauetako bat aukeratu beharko dute:*

- a) Saneamendu Sistema erabiltzea, dagokion isurketa-baimena lortuz gero, Ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz; behar diren obra eta instalazioak erabiltzaileak ordaindu beharko ditu.*
- b) Saneamendu Sistematik kanpo zuzenean isurtzea; horretarako, kasuan kasuko aginte eskudunaren isurketa-baimena lortu beharko da, bai eta Partzuergoak emandako isurketadispensatza ere, Ordenantzako 10. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera”.*

#### **“SANEAMENDU AUTONOMOA ERABILTZEA.**

*Saneamendu autonomia –dela Arazketa Instalazio Autonomoak (AIA) erabiliz, dela beste bide batzuk erabiliz, hala nola, Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatzen ez dituen eremuetan dauden estolderia sarea– salbuespenezkoa*







*izango da, eta ORDENANTZA honetako xedapen iragankorretan ezartzen diren baldintzetan (denborazkoak zein materialak) baino ez da baimenduko. (6. art.)*

Gaiaren inguruan, saneamendu-zerbitzua arautzen duen ordenantzak onartutakoari jarraiki, kontuan hartu behar da putzu septikoak arazketa-instalazio autonomoak direla eta, hasieran behintzat, beren funtzionamendua arau honek definitzen duen saneamendu-sistema orokorrarekin bateraezina dela. Beraz, ordenantzak berak planteatzen du pixkana, partzuergoak kudeatzen dituen udalerrri eta zona desberdinetara iritsi arte saneamendu-sistema orokorrak zabalduz doazen heinean, deuseztatzea.

6.3. xedapen iragankorrak zeharka aurre egiten dio saneamendu publikoaren sistema eskura jartzeari eta, bide batez, saneamendu-hoditeria publikoetan ezinbestez integratzeari. Bien bitartean, abonatu horiei aplikatuko zaien saneamendu-zerbitzuaren irismena arautzen du. Zehazki, aipatu xedapenak hala dio:

***“6.3 Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatzen ez duen eremu batean saneamendu autonomia erabiltzea***

*Ordenantza hau indarrean sartzean, Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatzen ez duen eremu batean funtzionamenduan dauden titulartasun pribatuko arazketa-instalazio autonomoak (AIA), lehen edo bigarren mailako sareetatik edo HUA batetik 100 metrora baino gehiagora egoteagatik, Ordenantza honetako 5. artikuluan zehazten den moduan, funtzionamenduaren aldetik ondoren azaltzen diren arauei jarraitu beharko diete:*

*Instalazio horien titularrak diren erabiltzaileek halakoak lehen mailako arazketa sistematzat atxiki beharko dituzte, haien isurketak Saneamendu Sistema Publiko batera lotzea posible den unera arte. Une horretatik aurrera, loturik geratuko dira Saneamendu Sistema Publiko batek zerbitzatutako eremu batean kokaturiko AIAtarako ezartzen diren xedapenei.*

*Instalaziook funtzionatzen jarraitzen duten denboran, instalazioetan pilotutako lohia hustea, garbitzea eta Galindoko (Sestao) araztegira garraiatzea AIA horien titularren konturakoak izango dira. Hala eta guztiz ere, Partzuergoak halako erabiltzaileei instalazioak hustu eta garbitzeko zerbitzu kolektibo alternatibo bat eskaini ahalko die, bai eta ondoriozko lohia Galindoko HUAraino eramateko garraioa ere.*

*Erabiltzaile mota horiei A motako erabiltzaileei (isurketa zuzenean araztegi egiten dutenak) dagokien saneamendu tasa aplikatuko zaie, Ordenantza fiskalaren arabera, izan ere, ezarri daitekeena arazketaren esparruari dagokio”.*

Azkenik, BBUPren saneamendu-zerbitzuari buruzko ordenantzak 25. artikuluan berariaz xedatutakoari jarraiki, etxeko erabiltzaileentzat isurketa-baimena (A mota) lehenengoz okupatzeko udal-lizentziari itsatsia doa.





2. BBUPk onartu duen bezala, estolderiaren udal-sareak hiri-eremu sakabanatuetako etxebizitza eta baserrietara hurbiltzeko programatuak zeuden epe ertainaren horizonteak igaro dira eta *“estolderia-tasaren hedapen potentzial hori, egiatan, ez dela gertatu”*.

Udal-estolderiaren sareak egin, zabaldu, ustiatu eta mantentzea udalen aginpidea da.

Kaltetutakoaren kasuan, eremu sakabanatuetako gainerako abonatuaren antzera, orografia konplexua eta estolderia publikoaren sareetatik urrundua dutelako, bertara konektatzeko udal-sareak eskura jartzeari buruz ezin daiteke hitz egin, beraz, beren kargura putzu septikoak deuseztatze eta higiezina estolderia publikoaren udal-sareekin konektatzeko lanei ez liekete aurre egin behar.

Azpitarratu beharra dago aipatu pertsonak eraikin isolatuetan edo hirigune sakabanatuetan bizi direla, egiaz saneamenduaren hoditeria publikoetara konektatzeko aukerarik izan gabe. Egoera faktiko hori aldatzea ez da inoiz egon pertsona horien erabakitze- eta jarduera-eremuan eta partzuergoak betiere ezagutu du. Izan ere, partzuergoak 2012. urtera arte bere gain hartu zuen saneamendu-tasa ordaintzearen kargura.

3. Uraren ziklo osoaren tratamenduak hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak zerbitzu osagarri bezala egituratzea eskatzen du. BBUPk edateko urez hornitu behar du eta sortzen diren ur beltzak behar bezala kudeatu behar ditu. Hala, araztegietara iristen diren hondakin-urak tratatu ahal izango dira, efluentearen kalitatea egun araudiak edo etorkizunean ingurune hartzailerako xedatutakoak eskatzen dituzten betekizunekin bat etortzeko.
4. Saneamendu-zerbitzuagatik ordain ekonomikoak tasaren lege-izaera du.

Zerga-legediak hurrengoa onartzen du: *“Tasen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira haiek ordaindu behar dituzten subjektuen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide generikoak”*. (Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 25.4. artikulua).

Aurreikuspen hori tasa ordaintzearekiko ordainsari-elementu osagarria da. Hala, nahiz eta zerbitzua eskaintzearen kostu berezi eta zehatza zergadun ezberdinentzat berdina den, bakoitzari likidatutako tasa desberdina izan daiteke, gaitasun ekonomikoaren arabera.

Hau da, tarifa-sistema subjektu pasiboek egiaz jasotzen duten zerbitzu zehatzaren eta euren ordaintzeko gaitasunaren gainean egituratzen da. Horri esker, etxeko erabiltzailea eta ura merkataritza- edo industria-jardueretarako erabiltzen duena bereizten dira. Azkenekoek, hasieran, hondakin-urak zama kutsatzaile handiagoarekin sortuko dituzte eta, ondorioz, etxeko erabiltzailearen tarifa zenbatekoaren ikuspegitik faboragarriagoa suertatuko da.





Kexagilearen kasuan, ondoren garatuko ditugun ondorioak aurreratuz, saneamenduaren kontzeptupean ordaintzen duen tarifa etxeko erabiltzaileari dagokio. Hala eta guztiz ere, materialki udalaren estolderia publikoaren sarearekin ezin duenez konektatu, sortutako ur beltzei dagokienez, bere kargura instalatu eta mantendu behar izan du lehenengo tratamenduaren konponbide berezia, putzu septikoa, alegia.

BBUPren zerga-ordenantzak 5. artikuluan tarifen egitura arautzen du eta hala dio:

*“Ordenantza honen xede diren tasen tarifa-egitura uraren ziklo osoaren kontzeptuan eta lurralde-uniformetasunaren, berdintasunaren, zuzentasunaren, nahikotasunaren eta kostu-berreskurapenaren printzipioetan oinarritzen da.*

*Erabiltzaileei bigarren mailako sareko Ur Hornikuntza eta Saneamenduagatik ezarritako Tasen tarifek zerbitzuaren kostu guztiak barne hartzen dituzte, hau da, bigarren mailako sareko kostu bereziak eransten dizkiete lehen mailako sareko zerbitzuaren tarifei. Saneamendu tarifek ez dute barne hartzen bigarren mailako sareko zerbitzuaren kostuak, Partzuergoak zerbitzu hori ematea bere gain hartzen duen neurrian baino ez direlako sartuko. Ordura arte, saneamendu zerbitzuagatiko tasek lehen mailako sareko saneamenduaren zerbitzuaren kostuak baino ez dituzte barne hartuko.*

*Kostuak berreskuratzeko printzipioaren ildotik, tarifa ingurumen-gastuak, baliabidearen kostuak eta zerbitzuak kudeatzeko kostuak estaltzera bideratuko da, nola finakoak, hala aldakorrak. Edozelan ere, zerbitzuak kudeatzeko kostuen barruan honako hauek egongo dira halabeharrez: dauden azpiegituren amortizazioa; halakoak ustiatu, babestu eta mantentzeko gastuak; eta, hala dagokionean, bizitza erabilgarria agortu aurretik haien ordeaz azpiegitura berriak jartzeko beharrezkoa dena, zerbitzuen eraginkortasun ekonomikoa eta baliabidearen erabilera arrazionala mantendu eta, ahal den neurrian, hobetze aldera”.*

8. artikuluan saneamendu tasari buruzko araudia jorratzen da: *“Saneamendu tasaren zerga-egitatea hornidura publiko edo pribatutik datozen uren isurketa erreal edo posibleak eratzen du; izan ere, uraren ziklo osoa osatzen duten prozesuekin bat etorritik, horniduraren bidez eskuratzen diren ur-bolumen horiek behar bezala tratatu behar dira, eta, horretarako, saneamendu-sistema publikoak egin, funtzionamenduan eduki eta onik zaindu behar dira, hondakin urak edo hondakin lohiak bildu eta tratatzeko martxan eta/edo egitasmoan dauden saneamendu sareen edo bestelako sistema batzuen erabilgarritasunaren arabera”.*

Hots, transkribatutako artikuluekin bat, ordainketek berdintasun- eta bidezkotasun-printzipioak beteko dituzte eta, gainera, egiazko isurketak edo potentzialak araztegiatan behar bezala tratatu behar badira, saneamendu-

tasaren zenbatekoa ordaindu beharko da, horietarako BBUPren titulartasuneko saneamendu-sistema publikoen elementuak eraiki, kontserbatu eta ordezkatu behar baitira.

Tokiko zerbitzuak eskaintzearen arloan, EBren 14. artikulua aldarrikatzen duen berdintasun printzipioa Konstituzioaren aurretik aplikatu da, jada 1955. urtean egun indarrean dagoen zerbitzuei buruzko araudiak 150. artikuluan formulatzen baitzuen. Testuan ondorengoa onartzen da:

*“La tarifa de cada servicio público de la Corporación será igual para todos los que recibieren las mismas prestaciones y en iguales circunstancias.”*

Azkenik, 15. artikulua arazketa-instalazio autonomoen tratamendua arautzen du. Artikuluak ustezko desberdinak bereizten ditu eta hala dio:

*“A.- Saneamendu Sistema batek zerbitzatutako eremu batean funtzionamenduan dauden titulartasun pribatuko arazketa instalazio autonomoak.*

*Erabiltzaile horiei, oro har, isurketak saneamendu sarera egiten dituzten A motako erabiltzaileentzat ezarrita dagoen saneamendu tasa izango zaie aplikatzekoa, isurketa horiek benetan egin zein ez egin, sarea eskuragarri dutelako eta instalazio autonomia kentzera eta sarera lotzera behartuta daudelako.*

*Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arautzeko Partzuergoaren Ordenantza – seigarren xedapen iragankorreko 1. eta 2. paragrafoetan– kasu horietarako ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eta bertan aipatzen diren gastuak izango dira haien konturakoak.*

*Instalazio horiek sistematik deslotzeko ezarritako epea betetzen ez bada, Galindoko HUAN beste hondakin hustuketa bat egiten duten bakoitzean gainordain bat aplikatuko zaie, lohion tratamenduaren kostuen parekoa, Ordenantza Fiskal honetan ezartzen denaren arabera.*

*B.- Saneamendu Sistema batek zerbitzatzen ez duen eremu batean dauden titulartasun pribatuko arazketa instalazio autonomoak.*

*Talde honetan sartzen diren erabiltzaileek lehen aipatutako Zerbitzu Ordenantza –seigarren xedapen iragankorreko 3. paragrafoan– kasu horretarako ezarrita dauden aurreikuspenak eta baldintzak bete beharko dituzte, eta bertan adierazten diren gastuak izango dira haien konturakoak.*

*Erabiltzaile horiei isurketak araztegira zuzenean egiten dituzten A motako erabiltzaileei dagokien tasa, Ordenantza Fiskal honek arautu bezala, izango zaie aplikatzekoa, zerga-egitatea arazketaren arlori bakar-bakarrik mugatzen delako.*

*Partzuergoek halako erabiltzaileei instalazioak hustu eta garbitzeko zerbitzu kolektiboa eskaini ahalko die, bai eta ondoriozko lohiak Galindoko HUAraino eramateko garraioa ere. Jarduera horiek guztiak haien konturakoak izango dira. Partzuergoari azken zerbitzu hori nola ordaindu Ordenantza Fiskal honetan ezarritako prezio publikoaren bidez arautuko da.*

*C.- Zenbait etxe-multzori edo auzori zerbitzua ematen dieten estolderia sare eta/edo arazketa instalazio autonomo komunak, Saneamendu Sistema batek zerbitzatzan ez dituen eremuetan.*

*Instalazio horiei Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua Arautzeko Ordenantzan -seigarren xedapen iragankorreko 4. paragrafoan- ezarrita dauden irizpideen arabera arautuko dira, eta isurketak saneamendu sarera zuzenean egiten dituzten A motako erabiltzaileentzat ezarrita dagoen saneamendu tasa izango zaie aplikatzekoa”.*

5. BBUPk uraren hornidura-tasa eta saneamendu-tasa fakturatzan ditu eta, horretarako, bi kuota elkartzen dira: kuota finkoa, instalatutako ur-kontagailuaren kalibrearen arabera; eta kuota aldakorra, fakturaren aldian higiezinan kontsumitutako ur-bolumen zehatzaren gainekoa.

2018ko zerga-ordenantzak saneamendu-tasa kontzeptupean ordaindu behar diren kuotak hurrengo moduan zehazten ditu:

*Kuota finkoa, 90 egunetik behin, 2.1.1 (etxeko erabiltzaileen isurketak sare publikoaren bitartez) eta 2.2.1 (araztegiara zuzenean egiten diren etxeko erabiltzaileen isurketak) epigrafeen erabiltzaileentzat, kontagailuaren kalibrearen arabera:*

<i>Kontagailuaren diametroa</i>	<i>Zerbitzu kuota (€)</i>
<i>15 mm-raino</i>	<i>6,9965</i>
<i>20 mm (...)</i>	<i>8,2191 (...)</i>

Puntu honetatik abiatuta, kuota aldakorreko tarifetan, ordenantzak honako isurketak bereizten ditu: batetik, saneamendu-sare publikoaren bidez egindakoak eta, bestetik, araztegiara zuzenean gauzatutakoak. Izan ere, prezio desberdinak dituzte. Kexan kexagileari eragiten dion ustezkoa bigarrena da, hau da, zuzenean araztegiara isuri behar du.

Zehatz-mehatz esanda, etxeko erabiltzaileen kasuan, estolderiaren udal-sarean integratuak badaude, isurketetarako kuota aldakorra hurrengoa da 2018ko ekitaldian:

*“Kuota aldakorra 25 m<sup>3</sup>-ra arteko kontsumoetarako ..... 0,5530 euro/m<sup>3</sup>  
 Kuota aldakorra 25 eta 75 m<sup>3</sup> arteko kontsumoetarako ..... 0,6786 euro/m<sup>3</sup>  
 Kuota aldakorra 75 m<sup>3</sup> baino gehiagoko kontsumoetarako ..... 1,2182 euro/m<sup>3</sup>”*



Isurketa zuzenean araztegia egiten denean, erabiltzaile horien isurketetarako ordenantzak honako tarifak xedatzen ditu:

*“Kuota aldakorra 25 m<sup>3</sup>-ra arteko kontsumoetarako ..... 0,4257euro/m<sup>3</sup>  
Kuota aldakorra 25 eta 75 m<sup>3</sup> arteko kontsumoetarako ..... 0,5225 euro/m<sup>3</sup>  
Kuota aldakorra 75 m<sup>3</sup> baino gehiagoko kontsumoetarako ..... 0,9380 euro/m<sup>3</sup>”*

Hau da, tarifa berriaren egiazko murrizketa egiaztagarria ondorengoa da: 0,1273 euro/m<sup>3</sup>, lehenengo tartean, 25 m<sup>3</sup> bitarteko ur-kontsumoak; 0,1561 euro/m<sup>3</sup>, bigarren tartean, 25 eta 75 m<sup>3</sup> arteko ur-kontsumoak eta 0,2802 euro/m<sup>3</sup>, hirugarren tartean, 75 m<sup>3</sup>-tik gorako kontsumoak.

Horren arabera, kuota aldakorra % 23 gutxitzearen ondorioz murrizten da tarifa. Dena den, ezin daiteke ondoriozta erabiltzaile horiek **“saneamendu-tasan % 23ko murrizketa dutenik”**, saneamendu-tasaren kontzeptupean gutxitze horrekin pertsonak ordaintzen duten hiruhileko tarifa ez baita % 23 jaisten. Nolanahi ere, idatziz jasoa gelditu den bezala, murrizketa saneamendu-tasaren zenbatekoan eragiten duten magnitude bakarraren gainean aplikatzen da.

Hots, hiruhilekoan 25 m<sup>3</sup> ur kontsumituko balira eta etxebizitzak diametro txikiko kontagailua (gehienez 15 mm) balu, egiaz balizko abonatuak aldi 3,18 euroko deskontua izango luke tarifyan<sup>1</sup>. Hortaz, urtebetean (4 hiruhilekoak fakturatuak) erabiltzaileak egiaz eta eraginkortasunez 12,72 euroko beherapena izango luke. Zenbateko horiei BEZa (% 10) erantsi beharko litzaieke. Hau da, saneamenduaren hiruhilekoko kuotan guttizko murrizketa 3,50 eurokoa eta urteko fakturan 14 eurokoa litzateke.

lido horri eutsiz, erabiltzaileak saneamendu-tasaren kontzeptupean hiruhilekoan ondorengoa ordainduko luke:

Kuota finkoa	90 egun	6,9965 €
Kuota aldakorra		
1. blokea	25,00 m <sup>3</sup> x 0,4257 euro/m <sup>3</sup> =	10,64 €
SANEAMENDUA GUZTIRA		17,61 €
BEZa (% 10)		19,37 €

Urtebetean uraren kontsumoa konstantea izanik, balizko zergadunak saneamendu-tasaren kontzeptupean 77,48 euro ordainduko lituzke.

Ondorioz, erakunde honek kexagilearekin partekatu behar du saneamendu-tasan % 23ko murrizketa egiazkoa ez dela. Aitzitik, anekdotikoa da eta

<sup>1</sup> 1. blokea 25,00 m<sup>3</sup> x 0, 0,4257 €/m<sup>3</sup>= 10,6425 € (araztegia isurtzea)

1. blokea 25,00 m<sup>3</sup> x 0, 0,5530 €/m<sup>3</sup>= 13,825 € (saneamendu-sarean isurtzea)



faktore bakarrean eragiten du: saneamendu-tasaren kuota aldakorra, tasaren zenbatekoa zehaztean beste magnitude batzuk elkartzen direnean.

BBUPk defendatutakoaren arabera, erabiltzaileek urik ez kontsumitu arren, partzuergoak gastu garestiak egiten jarraitu behar ditu, indarreko legeriak xedatutako parametroekin bat, hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak erabilera-baldintza egokietan mantentzeko. Nolanahi ere, kuota finkoek gutxieneko diru-sarrerak jasotzea bermatzen dute eta horiekin ordaintzen dira partzuergoak bere gain onartu behar dituen inbertsio handiak.

Saneamendu-tasa biltzen denean, saneamendu-sarea, hau da, hodian, hodi-biltzaileen eta elementu osagarrien lehen mailako sarea, baita hondakin-uren araztegia ere mantendu eta berritzen da. Ildo horri eutsiz, BBUPk saneamendu-tasaren barruan kuota finkoaren kontzeptupean lortutako zenbatekoak saneamenduaren lehen mailako sareari dagozkion azpiegitura berriak edo HUA kontserbatu, mantendu eta ordezkatzeko erabiliko ditu.

Ondorioz, Arartekoaren iritziz, kuota finkoa zehaztean ez da kontuan hartu etxeke erabiltzaile kexagileei bilketa-zerbitzua (ur beltzak lehen mailako sarearen bidez bideratzea) egiaz eta eraginkortasunez eskaintzen al zaien. Egiaz horiek bakarrik arazketa-zerbitzua jasotzen dute. Modu horretan, kuota finkoaren konfigurazioak berdintasunaren printzipioa urratuko luke eta, beraz, zerbitzu publiko bakoitzeko tarifa baldintza berdinetan prestazio berdina jasotzen dituzten guztientzat ez litzateke bera izango. Horiek bilketa-zerbitzuarekin zerikusia duten azpiegiturak mantentzen lagunduko lukete, zerbitzu hori ez dutenean eta beraientzat eskura ez dagoenean ere.

6. BBUPk defendatutakoaren arabera, erabiltzaile horiek tarifa murriztagoa ordaintzen dute eta zorrozki Galindoko HUA n lohien arazketa-kostuak finantzatzeko da. BBUPk, ordea, ez du froga-elementurik aurkeztu baieztapen hori objektibotasunez egiaztatzeko. Are gehiago, ez luke zailtasun berezirik izan behar halako froga-elementua aurkezteko orduan.

Bestalde, aurreko epigrafean aurreratu den bezala, saneamendu-tasari buruzko kuota finkoaren zenbatekoa ez da inolako zenbatekotan gutxitu. Saneamendu-tasa ordaintzen duen pertsona orok, ur-kontagailuaren kalibrearen arabera, saneamenduari buruzko kuota finkoa ordaintzen du eta hori alde batera utzita ur beltzak HUAra nola garraiatzen diren: hodi, hodi-biltzaile eta elementu osagarrien lehen mailako sarea, partzuergoaren titulartasuneko eta berak kudeatzen duena, erabiliz edo ez.

Putzu septikoa duten pertsonak ez dute isurtzen eta, gainera, ezin dezakete isur saneamenduaren lehen mailako sarera. Tanga-kamioiek lohiak jaso eta Galindoko HUAra garraiatzen dituzte.





Hori abiapuntutzat hartuta, Arartekoaren ustez, egungo saneamendu-tasaren konfigurazioak abonatu horien kaltean zerbitzu publikoak eskaintzean berdintasun-printzipioarekin talka egiten du.

7. Ondorioz, erakunde honek azpimarratzen du saneamendu-tasa berregituratu behar dela. Materialki udal-estolderia publikoaren sarearekin lotzea ezinezkoa bada eta, beraz, pertsona erabiltzaileak ezinbestez udal-sarean sartu eta bere kargura putzu septikoa kendu behar ez duenean, tasaren kargura jasotzen duen saneamendu-zerbitzua (zorrozki arazketa) ezin daiteke beste erabiltzaile batzuek jasotzen dutenarekin berdin, bigarren ustezkoan, etxebizitzak udalaren estolderia-sarearen barruan baitaude eta tasa beraren zerbitzura partzuergoak arazketa- eta bilketa-zerbitzuak eskaintzen baitizkie. Bi erabiltzaileek, ordea, saneamendu-tasaren kontzeptupean funtsean tasa berdina ordaintzen dute. Horrez gain, astungarri osagarria dago: pertsona horiek partzuergoarekin edo enpresa aditu batekin putzu septikoan sortutako lohiak hustu eta garraiatzea kontratatu behar dutela. Zerbitzu horrengatik, kasurik faboragarrienean, 253,49 euro (BEZa barne) ordaindu behar dira 2 urtez behin.

Estolderia publikoaren udal-sareak luzatu ez dituztelako edo kostuaren ikuspegitik konexio-obrak proportzioz kanpokoak direlako, ezin daitezke saneamenduaren lehen mailako sarera iritsi. Nolanahi ere, erabaki horiek erabiltzaileen jardura-eremutik aldeniak daude, baina pertsona horien interes ekonomikoak erabat kaltetzen dira, une honetan gozaten ez dituzten azpiegiturak ordaintzen laguntzen baitute.

Horrengatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

Arartekoak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari zerga-ordenantza aldatzea gomendatzen dio, egun putzu septikoekin higiezinaren titularrei bidaltzen zaien saneamendu-tasaren konfigurazioak gainerako erabiltzaileekin berdintasun-baldintzetan zerbitzuaren prestazio eraginkorrari ez baitio erantzuten.

